

ALKATEARI

Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, KONTROL MOZIO hau aurkezten du, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) neguan kabinak surflarientzat irekitzeari buruz aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Surfa Donostian zabalduen dagoen kiroletako bat da. Ehunka donostiar urte guztian aritzen dira surfean, eta gero eta gehiago dira. Adin guztietako gizon-emakumeak eta neska-mutilak sartzen dira uretan munduko hiri-hondartzarik onenetakoan, gogokoen duten kirola egitera.

Hala ere, nahiz eta gero eta jende gehiagok egiten duen surfa eta nahiz eta argi dagoen sasoitik kanpo ere egiten dela, Udalak ez die batere zerbitzurik eta erraztasunik ematen kirol hori egiten dutenei.

Beste edozein kirol egiten dutenek urte guztian dituzte eskueran azpiegitura publikoak, eta pozten gara hala izateaz, baina surflariek ez dute abantaila hori.

Horregatik, hau da proposatzen dugun

KONTROL MOZIOA

1. Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio azter dezala Zurriolako kabina kolektiboak urte guztian irekitzeko aukera, hondartzan jende gehien zer ordutegi eta egunetan ibiltzen den kontuan hartuta.



2. Udalbatzak gobernu-taldeari eskatzen dio azter dezala surflariei gauzak gordetzeko espazio bat eskaintzeko aukera, kirol-txartela dutenei deskontuak eginda.

Donostia, 2025eko maiatzaren 22a

Borja Corominas Fisas
udal-talde popularreko
zinegotzia